

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Agenda 21eko Foroaren parte hartze tailerraren akta.

Gaia: Legazpiko Mugikortasun Iraunkorraren Plana, eztabaidan (II. Tailerra).

2008ko martxoaren 10ean.

Legazpiko Udala.

18:30tik 20:30ra.

Gaur esan dezakegu... **lortutako helburua! Eta gainera, guztion artean lortu dugu!** Zergatik? Hona hemen azalpena...



- Bigarren bilera (eta momentuz azkenekoa) egin dugu, Legazpiko Mugikortasun Iraunkorraren Planari buruz.
- Berriro ere, talde handia osatu dugu. 29 legazpiar bildu gara eta gure 2 orduko eskaini dizkiogu herriari.
- Lan handia egin dugu eta aurkeztu den Mugikortasun Iraunkorraren Planaren aurrerakina hobetzeko proposamenak egin ditugu; ondoren, Endara enpresako talde teknikoak aztertu egingo ditu proposamen horiek.
- Eta gainera... pozik ikusi dugu taldean egin den lana, hitz eginez, eztabaidatuz, idatziz,...! Zalantzarik Legazpiko Agenda 21eko Foroak tailer bakoitzarekin bizi duen eta esperimendatzen duen ikaste-prozesuaren emaitza da.

Horregatik, ¡**ESKERRIK ASKO** berriro ere! Gaur, batik bat, honako hauei...

Junkal Fernandez ♦ Francisco Mencías ♦ Bixente Garmendia ♦ Floren Gutierrez ♦ Fernando Arakama ♦ Jose Luis Cid ♦ Fernando Martínez de Albéniz ♦ Arantxa Segurola (Haztegi Ikastola) ♦ Joxean Auzmendi (Ingurugela-Legazpi) ♦ Juan Miguel Urrutia ♦ Jose Ignacio Gil (Gipuzkoako Urak) ♦ Eugenio Gil ♦ Sagrario Diaz ♦ Montse Vallejo ♦ Ana Manzanos Sole Arostegi ♦ Manuel Fernandez (Buztintegi) ♦ Josean Lizarralde ♦ Joaquin Balerdi (Harri Urdin Brinkolako Auzo Elkarte) ♦ Josune Makaia (UGGASA) ♦ Garbiñe Egaña (Ilinti) ♦ Martin Gonzalez ♦ Eneko Aseginolaza ♦ Jose Luis Ugarte ♦ Borja Aranburu ♦ Oskar Salinas ♦ Sotero Plazaola (Legazpiko alkatea) ♦ Jon Erramun Uribeetxeberria (Agenda 21eko zinegotzia) ♦ Inma Hernández (Agenda 21eko teknikaria) ♦ Iciar eta Zorione (Prometea, SC).

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

- **Gaurko helburuak:** Orain artekoa gogora ekarri eta hobetzeko proposamenak eta aukerak bilatzeko taldean lan egin!

Gaurko tailerrari martxoaren 3an egin genuen lehenengo tailerrean eman zuenarekin eman diogu hasiera. Aurreko hartan, Endara enpresako Narciso Iglesias jaunak Legazpiko Mugikortasun Iraunkorraren Planaren aurrerakina aurkeztu zuen eta Legazpiko Agenda 21eko Foroak dokumentuaren lehenengo balorazioa egin zuen.



Horretarako, aurreko bileraren aktan jaso diren taulak hartu ditugu lan egiteko tresna gisa. Taula horietan, Foroaren ustez Planaren hasierako proposamenaren gauza onak eta hobe daitezkeenak jaso dira.

Eta horren gaineko hausnarketa egin nahi izan dugu gaur. Nola? Taldean lan eginez, ondoko galderari erantzuna ematen saiatuz:



Aurrerakinean garbi ikusten ez ditugun gai horiei erantzuteko... zein proposamen, aukera berri, hobetzeko ekarpen,... bururatzen zaizkigu?

Gai korapilatsua eta hainbat ataletan zaila egin zaiguna; baina taldeak duen gogoarekin ilusioarekin eta energiarekin, ... ba al dago egin ez dezagun zerbait?



- **Emaitza?** Foroaren izenean, Planaren Aurrerakinari Plana bera hobetzeko proposatzen dizkiogun proposamenak.



Ondoren, Endara enpresako talde teknikoak zehaztasunez eta sakontasunez aztertu beharko ditu bai proposamen horiek eta bai Legazpiko Mugikortasun Iraunkorraren Planaren barruan martxan jarritako bestelako parte hartze guneetatik jasotako iritziak eta ekarpenak (Web orria, egin diren informazio-bilerak, iradokizunak jasotzeko buzoia,...); guzti horren emaitza izango da dokumentu berria.

Zehaztasun gehiagorekin segidan, martxoaren 3an egin genuen tailerrean jaso genituen hobetzeko proposamenak azalduko ditugu. Modu berean, taldean landu ditugun bost ataletan, guztion artean egin ditugun hobetzeko proposamenak zehaztuko ditugu.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

1. Trafikoaren antolaketa	
 <p>Ez dugu garbi ikusten eta gai hauek sakondu beharra dagoela uste dugu...</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Aiztonagako igoera-jaitsiera eta bidegurutzea (arriskutsua). • Mauleon hoteleko zeharbidea. • Lanaren hiribidea kaleak bi aldetako norabidea izan beharko luke. • San Ignazio auzoko irteera. • Bi aldetako norabidea Santikutz eta Olaondo kaleen arteko errotondan. • Ibilgailuen gurutzaketa Kale Nagusian. • Nafarroa kaletik irteera txarra. • Txokoko errotonda parean etengabea da kamioien pasabidea. • Itxaropen auzora doan igoera hobetu..
 <p>Hobetzeko bururatzen zaizkigun proposamenak eta aukerak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Txorrona parean errotonda bat egiteko bideragarritasun teknikoaz aztertu; eta ezin bada, arazoa konponduko duen semaforoa jarri. • Santikutz kalearen eta Kale Nagusiaren bidegurutzerako aukera tekniko hobereana aztertu. Talde moduan, honako aukerak ikusten ditugu (bakoitzaren aldeko eta kontrako gauzekin): <ul style="list-style-type: none"> • Zeharbidetik ez daitezela ibilgailuak igaro (taxiak eta larrialdietarako ibilgailuak izan ezik); horrek esan nahi du ibilgailuek Olaondo zeharkaleraino joan beharko dutela eta ibilbide luzeagoa egin. • Eremu hori 30. eremu bihurtu, Patrizio Etxeberria kalearekin batera. Bateragarriak al dira zonaldeko erabilerak eta kale horretan egon daitekeen trafikoa? • Ikuspen-arazoari irtenbidea emateko, Haizea taberna parean dauden bateriako aparkalekuak lerrokoak izatera pasa daitezela. • Udalerrira eta auzoetara sartzeko bideak diseinatzean, kontuan hartu behar da kamioien zirkulazioa, ahal den neurrian hirigunetik pasa ez daitezen (adibidez, Urtatzen dauden enpresetara joateko).

2. Aparkatzea	
 <p>Ez dugu garbi ikusten eta gai hauek sakondu beharra dagoela uste dugu...</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Aparkalekuak desagertzen dira (gehiago behar dira). • Aparkalekuen segurtasuna. • Aparkalekuak errentagarri bihurtu. • Aparkalekua Plazaola kalean. • Aparkalekua Latxartegi parkean. • Aparkalekua Itxaropen auzoan eta ez Kultur Etxean.
 <p>Hobetzeko bururatzen zaizkigun proposamenak eta aukerak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Aparkalekuak jartzeko aukerak proposatzen ditugu, teknikoki egin daitezkeen azter dadin: <ul style="list-style-type: none"> • Aparkalekua paper-fabrikari (dagoeneko Legazpiko udalerriko Hiri Ordenazioko Plan Orokor berriari aurreikusten dena, baina zonaldearen hirigintza-garapeneraren mende dagoena). Aparkaleku horrek lehentasuna izatea proposatzen dugu eta ez Latxartegiko aparkalekuak. <p style="text-align: right;">(hurrengo orrialdean jarraitzen du)</p>

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

2. Aparkatzea

(aurreko orrialdearen jarraipena)



Hobetzeko bururatzen zaizkigun proposamenak eta aukerak

- Bikuña industrialdean kamioiak aparkatzen duten tokia ibilgailuak aparkatzeko egokitzea; era berean, kamioiak aparkatzeko beste lekuren bat aurkitu beharko da (Plan Orokorrean aurreikusita dago tokiren bat).
- Gorakako aparkalekuak sortu (adibidez Industrialdean).
- Planean jaso den Urtatzako aparkalekua sustatu; horrela, enpresa eraikitzaileak eraikiko dituen etxeetako urbanizazioan aparkalekua egiteaz gain, aparkaleku publikoa ere egin dezan.
- Juanastegi eta San Ignazio auzoen artean aparkaleku gehiago egin, berdegunearen zati bat kenduz eta aparkalekua baterian jarritz.
- Udalerriko hainbat tokitan **bizikletak aparkatzeko** gunek egokitu.
- **Garajeak dituztenek** autoa bertan sar ditzatela sustatu.
- Leku batetik bestera joateko **oinez joateko ohitura** sustatu, horrela ez dugu edukiko aparkalekuak falta direnaren sentsazioa.
- **Bide-hezkuntza** landu aparkatzeari dagokionez (egoera desegokiak saihesteko: lerro bikoitzean aparkatzea, gaztetxearen inguruan autoa bidean uztea,...).

3. Oinezkoen mugikortasuna eta oinezkoentzako ibilbideak eta garraio publiko bertikala.



Ez dugu garbi ikusten eta gai hauek sakondu beharra dagoela uste dugu...

- Osasun-zentrora iristeko aukera (batik bat mugikortasun-arazoak dituzten pertsonak).
- 30. eremuetan arriskutsua izan daiteke oinezkoek bidea zeharkatzeko toki zehatzik ez egotea.
- 30. eremua Patrizio Etxeberria kalean.
- Hainbat auzotara iristeko bideak (Arantzazu,...)
- Merkataritza-guneak oinezkoen guneetan.
- Santikutz: Espaloiak zabaldu.
- Txorroneako oinezkoen pasabidea



Hobetzeko bururatzen zaizkigun proposamenak eta aukerak


- Proposatutako ekintzetatik, **osasun-zentrora iristekoa** lehenetsi.
- **Auzoetara iristeko bideak** hobetzeko aurreikusten diren ekintzak auzoetako elkarteekin landu, haiek ezagutzen baitute ondoen bertako egoera, bertan dauden arazoak,....
- **Santikutz kaleko espaloia** zabaldu.
- **Merkatariekin etengabeko harremana** mantentzea, guztion artean kalea oinezkoentzat jartzeak sor ditzakeen beldurrak eta zalantzak gainditzeko.

(hurrengo orrialdean jarraitzen du)



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

3. Oinezkoen mugikortasuna eta oinezkoentzako ibilbideak eta garraio publiko bertikala



 <p>Hobetzeko bururatzen zaizkigun proposamenak eta aukerak</p>	<p>(aurreko orrialdearen jarraipena)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Patrizioko ostatuaren lorategiaren “zati” bat kendu (metro eta erdi gutxi gorabehera) eta irabazitako metro horietan aurreko espaloiaren jarraipena egin (gaur egun espalo horrek “L” forma du). • Hirigunean autoen, oinezkoen eta bizikletarien elkarbizitzari dagokionez, ahal dela trafikoa hirigunetik kanpo ibil dadin saiatu eta barneko zirkuitua barruko mugikortasunerako eta irisgarritasunerako ezinbesteko joan-etorrietarako bakarrik izan dadila. • Jarriko diren igogailuetara iristeko modua bermatu (eta, oro har, proposatuko diren ekintza guztietan).
--	---

4. Bidegorria

 <p>Ez dugu garbi ikusten eta gai hauek sakondu beharra dagoela uste dugu...</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Telleriarte eta Brinkola auzoekin lotu beharra (Industrialderaino jarraitzea). • Erabiliko al dira horrenbeste bizikleta eta bidegorriak? • Saturnino kaleko errotondaren bidegurutzea berrikusi. • Bidegorrien proposamena. • Zumarragara doan bidegorria bukatzeko lanak bizkortu. • Bidegorria Urola kaleko industria gunearekin lotu. • Bidegorria Patrizio Etxeberria kalean? • Autoen eta bizikleten abiadura. • Oinezkoen eta bizikletarien arteko elkarbizitza.
 <p>Hobetzeko bururatzen zaizkigun proposamenak eta aukerak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hiri barruko bidegorriari dagokionez: <ul style="list-style-type: none"> • Patrizio Etxeberria kalean bidegorriak norabide bikoitzekoak izan daitezela, kalea aldapan egonda eta autoen zirkulazioa norabide bakarrekoa izanda, arazoak sor daitezkeelako. • Hirigunetik kanpoko bidegorriari dagokionez: <ul style="list-style-type: none"> • Bizikletariak saihasbidea gurutzatu beharra izan ez dezaten, Zumarragatik datorren bidegorriaren ibilbidea aldatu; Saturnino Telleria kaleko errotondatik igaro ordez, Urola ibaiaren ertzetik, txalet berrietatik,... geltokirantz bideratzea proposatzen dugu. Eta “aisialdiko” bidegorri gisa jarraipena eman dakioke bidegorri horri edo azkarrago iristeko (bide gogorragoa izan arren) kanposantutik zehar Telleriartera, Motxorrora, Santa Marinara,.... • Zumarragara doan bidegorriari lehentasuna eman. • Telleriarte eta Brinkola auzoen artean egingo den bidegorriak ez dezala gaur egun dagoen auzo-bidea (beheko bidea) hartu. • Hezkuntza eta gizalegeko jokabideak sustatu, oinezkoek eta bizikletariak gune berdinak konpartitu ditzaten.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion partehartzearekin, iraunkortasunaren bidean

5. Garraio publikoa (trenbidekoa eta errepidekoa)	
 <p>Ez dugu garbi ikusten eta gai hauek sakondu beharra dagoela uste dugu...</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Geltokiaren proposamena (Brinkolaraino luzatzea, asmo hori Aizkorriko Parke Naturalaren sarbidea izatearekin bat datorrelako). • Gainera, Zumarragara joateko autobusa 30 minuturo dugunez, beharrezkoa al da geltokia? • Autobus-aldaketa Urtatza auzora joateko.
 <p>Hobetzeko bururatzen zaizkigun proposamenak eta aukerak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Trenbidearen gaineko proposamenari dagokionez, hauxe da Foroak bultzatzen duena: <ul style="list-style-type: none"> • Legazpin dagoen geltokia dagoenetan uztea. • Brinkolako geltokia mantendu eta, ahal bada, Brinkolaren eta Zumarragaren arteko tren-kopurua gehituz (gai hori zaila da erabiltzaile gutxi daudelako eta RENFE enpresarentzako errentagarria ez delako); lagungarria izango litzateke Aizkorriko Parke Naturalerako sarbidea Brinkolan jartzea (udalerriak proposamen hori bultzatu behar du). • Garraio publikoaren erabilera sustatu (autobusa eta trena). Horretarako ekimen hauek jar daitezke martxan: <ul style="list-style-type: none"> • Autobuserako, trenerako,... bono bakarra sortu. • Ordutegi egokiak eta koordinatuak. • Garraio publikora iristeko modua bermatu (bai autobusetara iristea bai tren geltokira).

Argi dago, lanean eman ditugun 2 orduak emankorrak eta probetxugarriak izan direla. Taldean lan egitea luxu handia delako!

● Hurrengo hitzordua? Opor ondoren izango da...

Merezitako opor-egunak, baita Legazpiko Agenda 21eko Foroak ere! Gogo biziz eta erronka askorekin eman diogu hasiera 2008. urteari, baina ongi etorriko zaigu atsedentxo bat, ondoren beste ikuspegi batekin, bestelako esperientziekin eta berritutako indarrekin, bideari berriro ekiteko!

Beraz, ongi igaro itzazue egun hauek eta elkar ikusiko dugu datorren apirilaren 3an!!

Eskerrik asko!

Gozatu oporrak eta... egun batzuek bakarrik bada ere, eman jai Legazpiko Agenda 21ari!